

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ebaristo Aiestaran Pikabea

*Donostia,
Gipuzkoa
(1927-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Añorgako Unanue Berri etxe-baserrian jaioa. Aita Usurbilgoa zuen, ama Aginagakoa. Bost senide ziren, baina hiruk egin zuten aurrera. Eskola publikora joan zen, Añorga Txikin, eta gero Rezolaren eskolan ere ibili zen. Rezola lantegian egin zuen lana, erretiroa hartu artean. Auzoko ekintza guztietan parte hartu izan du: pilota, dantza, kantatu... 50 urte egin ditu Donostiako Orfeoian. Añorgako Otxotearen sortzaileetako bat ere bazen. Joxema Mendiola, Mari Pili Alkain eta Kontxita Argoterekin batera egin zuen kontu-saioetako bat, Rezola museoan.

Zintak

DON-096

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-23
- **Iraupena:** 152 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

DON-111

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-28
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Mandoketan jolasean

- **Erref:** DON-096/007
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Mandoketan egiten zuten, "txorro-morro-piko-tailo-ke!" jolasa. Jolas hori azaltzen dute.

2. Euskaraz egiteagatik isuna

- **Erref:** DON-096/008
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:10:49. **Bukatu:** 00:14:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan 7 urte arte neskak eta mutilak batera egoten ziren. Dena erdaraz egiten zen. Irakasleak kanpotarrak izaten ziren. Lagunartean ere eragina zuen. Joxe Manuelen aitari isuna jarri zioten umetan Errezilen, euskaraz egiteagatik.

Transkripzioa

- Ebaristo: Beste gaiñontzian ez baitzan...
- Kontxita: Ez, eta kaniketan ikeragarri.
- E.: Buf! Kaniketan...
- Maria Pilar: Ta gero esan deu re bai aldaketa o... neskak eta mutilak aparte, baiño zazpi urte arte danak alkarrekin neskak eta mutillak, e.
- K.: Bai, Karmenekin.
- M.P.: Esaten gendun "párbulos".
- A... hori eskolan?
- K.: Bai.
- M.P.: Hasieran neska ta mutillak "con doña Carmen". E... don Jesusen emaztea.
- Eta erderaz erakusten zuten?
- Denak: Bai...
- M.P.: Ez gendun euskaldunik.
- E.: Guk ez deu ezautu ikastolaik. Nik behiñik behin ez, zuek ez dakit.
- K: Ez... gure semiak hasi zian lehenengoz Añorgan ikastolan. Oseake...
- M.P.: E... maisuk eta danak, batean Burgoskua, bestian Zamorakua, bestian... ta, ahal dala, hitzik ez euskeraz.
- K.: Ez.
- M.P.: Ez genekan [iteik].
- Orduan, gerra aurretik eta ondoren antzeko. Erderaz dana?
- K.: Dena erderaz.
- M.P.: Guk dana erderaz.
- E.: Aurretik behiñik behin bai.
- Zu ibili ziñanian erderaz eta gero ere...?
- E.: Bai, bai, bai...
- K.: Nik ez det...
- E.: Ikastolak oso-oso gero...
- Joxe Manuel: Ikastolan lana hasi arte erderaz hemen danak. Hemen bertan, patronaton, erderaz. Nik han Goiatzen sei urtekin erderaz eta han ez zeki... Zea, ni honea etorri nitzan zortzi urtekin eta parre iten ziaten, erderaz ez nakillako... ba pentsa! Gero eskola jun eta... zea, erderaz in bihar. Ta nola, ez baldin badakizu? Ta hoi nik, hoi nik ezaututakua. Pentsatzen det Ebaristok, ba... Beira, igual hogeitaz urte lehen...

- E.: Bai, bai, bai.

- M.P.: Gure gurasuak erderaz ez zekiten, ta guk dana erderaz. Dana erderaz.

- K.: Bai, guk euskera egiten genuen...

- M.P.: Eskolan dana erderaz. Eta kale... eskolaz kanpo´re bai.

- Eskolaz kanpo ere bai? Kalia jolastu-ta erderaz?

- M.P.: Dana erderaz. Dana erderaz. Geo, pixkat zeatu deu guk haurrak izan eta hari zeatuz. Bueno, ulertu dana, e! Baiño gurasuakin´e asko erderaz, e!

- K.: Guk ez, guk ez. Guk euskera egiten genuen.

- E.: Eta zuek Goiatzen euskeraz iten zenduen?

- J.M.: Guk, zea, kuadrillan bai.

- E.: Ez, baiño eskolan, eskolan.

- J.M.: Eskolan ez!

- E.: Eskolan ez...

- J.M.: Eskolan isilikan egon bihar, zeatikan nola ingo zenun? Erderaz jakin ez eta euskeraz ezin egin. Ordun, isilikan egon.

-E.: Ni, adibidez, zortzi urtekin, zortzi urtetik hamaika bitartian, Agiñan bizi izandu nintzan, amonaen baserriyan, amaren baserriyan. Eta harea, eskolara juten nintzan, ba, han zeara, Agiñara. Eta igual han doña “no se qué” ta ezta hitz bat´e euskeraz. Dana erderaz.

- J. M.: Aittai Errezilen, zea, beak hamar urte zittula, 10 xentimo multa bota zioten behintzat-eta, euskeraz itteatikan. Errezilen, e! Hamar xentimo multa. Eta esaten du /esateu/: “Joder, eta nola...? Zer... zer in bihar det isilikan eon o...?”. Ta hoi beak askotan esaten zun.

3. Larru eta belarrezko baloiak

- **Erref:** DON-096/012
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Irakasleak eskuetan zotz batekin jotzen zituen ikasleak zigor modura. Taberna Berriko frontoian asko aritzen ziren jolasean. Baloia beraiek egindakoa izaten zen, larru zati baten barruan belarra sartu eta josi.

4. Kilkerrak harrapatzen

- **Erref:** DON-096/013
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:24:54. **Bukatu:** 00:27:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Kilkerrak harrapatzen asko aritzen ziren, gero etxera eraman eta zaintzeko. Nola gorde eta zaintzen zituzten kontatzen dute. Gabezia guztiekin oso zoriontsu bizi ziren.

5. Harriekin, kanikekin, txapekin jolasean

- **Erref:** DON-096/014
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:27:07. **Bukatu:** 00:30:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Buleketan, uztailarekin (kurritetan)... horrelako jolasetan aritzen ziren. Uztailarena azaltzen dute. Kanikak, harriak, treneko txartelak, pospolo kutxen tapak, tabak, txapak... erabiltzen zituzten jolaserako.</p>

6. Treneko bidaia txartelekin jolasean

- **Erref:** DON-096/015
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:30:26. **Bukatu:** 00:31:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Treneko bidaia txartelekin mutiak aritzen ziren. Jolasa azaltzen dute.

7. Estraperloa "Pamplonica"n

- **Erref:** DON-096/017
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:37:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>"Pamplonica"n estraperloko gauzak ekartzen zituen eta eskolatik ikusten zuten nola botatzen zuten karga. Emakume estraperlistak gona zabalekin eta erabat gizen ikusten zituzten. Kontxidak eta ez zuten goserik pasa baserrian. Argazkian, Plazaolako trena.</p>

8. Ogi zuria edo Francoren ogia

- **Erref:** DON-096/018
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:37:06. **Bukatu:** 00:39:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamenduko ogia langileentzat eta bestelako familientzat desberdina izaten zen. Ebaristok ogi zuria lehenengoz noiz jan zuen gogoratzen du. "Pan de Franco" esaten zioten ogi zuriari.

9. Gobara egitera errekarra

- **Erref:** DON-096/019
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:41:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamenduko olioak. Kontxidak odolkiak nola egiten zituzten kontatzen du. Ebaristok etxean ez zuen urik izan. Errekara joan behar izaten zuten gobara egitera Ebaristoren etxeok eta Kontxitaneok. Nola egiten zuten kontatzen du Kontxidak.

10. Añorga Txikiko labaderra eta dutxak

- **Erref:** DON-096/020
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:41:51. **Bukatu:** 00:45:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Maria Pilar Añorga Txikiko labaderra joaten zen. Neguan gogorra izaten zen. Etxe bakoitzak txanda bat izaten zuen garbitzeko. Dutxa publikoak ere baziren eta denak han garbitzen ziren, dohainik, astean behin. Etxean galdara batekin garbitzen ziren; lehenago errekan.

11. Hondartzan emakumeak erabat jantzita

- **Erref:** DON-096/021
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:45:26. **Bukatu:** 00:48:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Hondartzara oso gutxi joan izan dira, urtean behin edo. Oso umetan, barruko arroparekin eta emakumeak erabat jantzita egoten ziren, gazteagotan bainujantziarekin. Apaiza goitik behera jantzita bainatzen zen.

12. Pekatu mortalak konfesatu behar

- **Erref:** DON-096/023
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:50:06. **Bukatu:** 00:51:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Orduan dena pekatu zen. Konfesatzerakoan dena kontatzen zuten. Mezetara ez joatea, biraoak esatea, adibidez, pekatu mortala zen eta infernura joan behar konfesatu ezean.

13. Sexua tabua

- **Erref:** DON-096/024
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:51:27. **Bukatu:** 00:54:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Neska-mutilen arteko harremanak oso kontrolatuta zeuden baina orduan ere umeak jaiotzen zirela diote. Sexua erabateko tabua zen. Kontxitik anekdota bat kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Eta mutillekin egotia, hori pekatu...?
- Maria Pilar: Egon bai, egon bai, baiño ezta ikutu´re eskutik eta. Egon bai, kuadrillan ta [...].
- Eta muxua?
- Kontxita: Muxua hemen. "Nun eman diyozu?", "Nun in dezu?", "Zenbat aldiz?". E? Horrela zan guzia, e.
- Joxe Manuel: Bai, baiño hoi da esaten dana /esteara/. Baiña, zea, erromeiyya pasa ta gero neskaguntzen juten zianak haiek ze iten zuten? Hola bakarrik? Bengaa!
- K: Nik [...].
- M.P: Ari gera guria esaten.
- K: Ni ari naiz...
- Ebaristo: Ordun´e haurrak sortzen ziala, e?
- J.M: Bai, bai.
- K: Pues ez dakizute ze beldurra naukan nik 22 urtekin...
- J.M: Eta arto-saillak galantak zian, e, ordun.
- K: ... ezkondu nintzanen, aizu, lehenengo gau horri. Egia esango dizut. Ni hasi nitzan... Panplonara jun giñan. Ta hasi nitzan negarrez estaziyuan eta artian hotelera iritsi... Nola zun izena, denok juten giñena ezkondata Panplonara? Zuk badakizu.
- E: Ez, ni zeera, Gasteizera jun nitzan.
- K: Ni bai. Ta gero [al...] a Madrid.
- M.P: Zan tabu, tabu, tabu.
- K: Tabu.
- J.M: Bai, bai.
- Ez zan hitz egiten holako kontuei buruz?
- K: Ezta pentsatu´re!
- M.P: Ta ez dakit ze pasa zan, baiño ordutikan ez gea... aldatu in gea, bai, ematen du /emateu/ asko, bao hua barrenen do, e! Hua barrenen do.
- K: Bai, baiñan ez; aldatu gea. Aldatu gea. Nik pentsatzen det baietz.
- Eta ezjakintasuna egongo zan, ez bazan hitz egiten horri buruz, jakin ere ez, ez?
- M.P: Klaro! Ez, ez, ez, ez.
- K: Aizu, begira ze konsejua lehenengoz etxian, mutillekin hasi nitzala: "Aizan, badakin, e, harriyak harriyak jotzen badin, txispa ateratzen din,

e!". Hor zegon koxka!

- J.M: Oso ona!

- Eta? berdin-berdin geratu zinan, ez?

- Berdin-berdin gelditu nitzan. Oseake, hoixe zan. E? Bagiñekiun, zergatikan basarriyan asko ikasten dezu animaliak. Bagiñekiun zer zan. Oseake... Hori. Han behiak eta gaiñontzekok, badakizu zer gertatzen zan. Eta, ordun, kalekuak baiño gehio gendakin era hortan. Baiño orduan, klaro, bildurra, horrexegatik.

- J.M: Bai, bai. Eskola earra da hori.

- K: E?

- J.M: Eskola earra dala.

- K: Bai.

- E: Bai, bai.

- Bai, kalia-eta emakume askok pentsatzen zuen muxu emanda bakarrik... ez?

- K: Bai, hori da. Hori da. Ez, ez, ez. Oain, ezkututzen [genituen], osea, guri gelara bialtzen ziguten, e? Zezena ekarri bihar zutenian eta behia estali bihar zutenian, aizu, gelara! Bainan gu kortinan bazterretikan begira, hantxen, ze ikusi. E?

- J.M: Klaro, klaro.

- Klaro, nahikua esatia ez ikusteko...

- K: Bai, begira behintzat. Eta hori.

14. Sasiemaginak erditzeetan

- **Erref:** DON-096/025
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Hilerokoari buruz lagunartean izaten zuten, ez zen aurretik azalpenik ematen. Atzerapenen bat zuten umeak ezkutatu egiten zituzten. Sasiemagina etortzen zen etxera erditzen laguntzera.

15. Haurra izan eta etxean egon beharra

- **Erref:** DON-096/026
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:57:40. **Bukatu:** 01:00:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Kontxidak eta Maria Pilarrek, biek izan dute ume bana etxean. Haurlaguna (plazenta) lurperatu egiten zen. Gero haurra bataiatzen zen eta handik 8-10 egunera elizara sartzea egiten zuten, ama eta umea aurkeztera. Handik aurrera kalera irtetzeko aukera zuen amak.

16. Apaiza gaixoei jauna ematera etxera

- **Erref:** DON-096/028
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:01:53. **Bukatu:** 01:03:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Apaiza gaixoen etxera joaten zen jauna ematera hileko lehen ostiralean. Kanean zehar kapa bat jantzita joaten zen eta akolito batek txilina jotzen zuen. Haiekin gurutzatuz gero, belaunikatu egin behar izaten zen bistatik aldendu arte.

17. Añorgako dantza taldea

- **Erref:** DON-096/030
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:05:48. **Bukatu:** 01:08:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

<p>Añorgatarrek Rezolan lan egiten zuten, ia-ia denek, eta hortik mugimendu handia sortu zen, euskal dantza taldea, adibidez. Pujana irakasleak prestatu zuen taldea, 1926an.</p>

Transkripzioa

- Ebaristo: Pues bueno... este... hemen, esan behar da -iruitzen zait, e-, zea, esan deu, ba, gazteak nola jolasean ta hola. Baiña gero baita esan behar da ya gazte-gaztetatikan, hemen, bueno, Rezola zan, larogei-larogeita hamar, ehuneko larogei-larogeita hamar Rezola zan Añorgan dana. Eta horren babesean beste gauza asko´re bai, e? Oseake ez bakarrik... Ordun, gehienbatian, gaiña, hemengo hemen beste añorgatarrek gehienbatian danak lana itten zuten Rezolan. Ordun pilla bat zan! Eta, ba, gero hortikan sortu zun Rezolak jolasetxea sortu zun eta hortikan gero, ba, dantza-taldeak, musika-taldeak... Bueno, hemen dantza talden txikitatikan hasi giñan. Zuek ibili zeate dantzan?
- Maria Pilar: Ni hasi in nitzan, baiña haundigik in giñala ta fuera.
- Ebaristo: Nik dantzan´e asko in det.
- M.P.: Perikokin hor, terrazan.
- Ta ze dantza iten zian?
- Joxe Manuel: Euskal dantzak.
- Euskal dantzak. Ezpata-dantza eta...
- J.M.: Ohitura batez ere zan, zea, Gipuzkoako, Gipuzkoako zikloa... brokel dantza zikloa. Gehiena. Eta geo Bizkaiko dantza batzuk ere bai iten zian, baiña, bueno, hortikan aurea ezer´e gehio ez. Baiña hemengoak bai. Zeatikan etorri zan bere momentun Rezolak ekarri zun Pujana eta badago...
- E.: Maisu haundi bat, e!

- J. M.: Bai. Detalle bat dago esanez nola bostehun pezta pagatu zion bere momentun, ba, talde hoi ateatzeko. Ez du jartzen bostehun pezta hoiek zertako zian; o dena prestatzeko o holako zeozer izango zan, zeatik diru asko zan ordun bostehun pezta. Ta eman zion eta talde oso politta preparatu zun.

- Eta hori ze urte ingurutan izango zan?

- J. M.: "Mil novecientos veintiseis".

- Hogeita seian?

- E. Bai.

- Orduan, dantza taldea orduan sortu zan eta...?

- J. M.: Ordun sortu zan.

- E: Eta geroztikan ya ez da eten, e!

- Kontxita: Ez da eten, e.

- E.: Ordutikan.

- J. M.: Bai, gero izan dittu e... bueno, hobeto gaizkio, gora, behera... igual urtebete eondu dala nahiko gaizki, baiña, bueno, hor jarraitzen du eta oain momentu hontan ere talde oso politta dao.

- E.: Taldia politta baiño gehiago.

18. Añorgako dantza taldean neskak eta mutilak

- **Erref:** DON-096/031
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:08:17. **Bukatu:** 01:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantza taldean lehenengo mutilak hasi ziren eta lau urteren ostean, neskak ere bai.

19. Jolas Etxea

- **Erref:** DON-096/032
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:11:28. **Bukatu:** 01:12:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Jolas etxean parrokiako abesbatza, dantzak eta beste egiten ziren, Rezolaren babesean.

20. Ertizka otsotea eta abesbatza

- **Erref:** DON-096/033
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:12:54. **Bukatu:** 01:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ertizka otsotea 1964an sortu zen. Emakumeen abesbatza sortu berriari buruz hitz egiten dute. Gazte garaiko parrokiako abesbatzetan gizonak izaten ziren gehienak. Emakumeak bakarlariak izaten ziren.

21. Herritarren antzerkiak eta zinema

- **Erref:** DON-096/034
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:16:25. **Bukatu:** 01:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zinema berria 1953an egin zuten. Ordura arte Jolas Etxean zegoen. Antzerki asko egiten zen. Taberna bazegoen eta joko eta jolasetarako gunea ere bai. Astebukaeran izaten ziren filmak, sarrera merkearekin.

22. Rezolako jabearen egunean zinea doan

- **Erref:** DON-096/035
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:18:44. **Bukatu:** 01:21:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Rezolako jabearen egunean zineko sarrera dohainik izaten zen. Kanpoko zinea ere botatzen zuten. Antzerkirako eszenatoki berezia zegoen. Antzerkia erdaraz egiten zuten baina zenbait opereta, Maitena adibidez, euskaraz egin zen.

23. Ikastolaren hasiera

- **Erref:** DON-096/037
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:25:28. **Bukatu:** 01:28:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Hemeretzi urterekin dantza taldean irakasle hasi zen Joxe Manuel. Orduan berreskuratu zuen euskara. Ikastola nola hasi zuten kontatzen dute. Miren Teresa Aleman izan zen lehenengo irakaslea Añorgako ikastolan.

24. Añorga Kirol Elkarte

- **Erref:** DON-096/038

- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:28:28. **Bukatu:** 01:31:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola

Laburpena:

Añorgako kirol elkarteak 1922rekin hasi zen, korrikalariekin eta txirrindulariekin. Geroago futbola eta pilotarekin hasi ziren.

25. Añorga auzoan aldaketak

- **Erref:** DON-096/040
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:32:27. **Bukatu:** 01:35:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

1850ean sortu zen Rezola Añorga Txikin eta 1900ean Añorgan. Añorga oso desberdin zegoen, Rezolak eraiki du dena. Fabrika zegoen lekuan Añorga izeneko baserria zegoen eta hura botata eraiki zuten Rezola. Pixkaka etxeak eraikitzen eta beste guztia jasotzen hasi ziren.

26. Añorgako ekonomatoa

- **Erref:** DON-096/043
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:40:20. **Bukatu:** 01:41:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Ekonomatoan denetarik zegoen baina arroparik ez; oinetakoak bai. Ebaristok anekdota bat kontatzen du. Hankautsik asko ibiltzen ziren Kontxita-eta baserrian.

27. Añorgako festak

- **Erref:** DON-096/045
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 01:42:37. **Bukatu:** 01:46:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak

Laburpena:

Añorgatarrek bertako sentimendua dute. Festa handiak antolatzen zituzten:

zezenak, su artifizialak, dantza saioak, pilotariak, herri kirolak... Urtero zer bait berria inauguratu edo bedeinkatzen zen.

28. Rezolako langileen afari-merienda festetan

- **Erref:** DON-096/046
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:46:13. **Bukatu:** 01:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak

Laburpena:

Festetan, uztailaren 18an, Rezolako langileei dohainik afari-merienda ematen zieten. 1.000 lagun inguru batzen ziren. Uztapide eta Basarri bertsolariak urtero izaten ziren.

29. Añorgako karroza Pazkoetan

- **Erref:** DON-096/049
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:55:16. **Bukatu:** 01:58:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Pazkoetan Añorgatik ere karroza bat ateratzen zen Donostiara. Lehenengo aldiz egin zutenean, Rezolaren hastapenak irudikatu zituzten. Kontxita ohorezko dama izan zen.

30. Oilasko biltzea festetan

- **Erref:** DON-096/051
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 02:00:04. **Bukatu:** 02:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Festatako beste ohitura bat zen, gazte kuadrilla bat baserriz baserri joaten zen eskusoinuarekin eta oilaskoak eta untxiak ematen zizkieten makila batean zintzilikatzeko. Kaletarrek dirua ematen zieten. Gero parranda egiten zuten.

31. Erramua ekaitzak uxatzeko

- **Erref:** DON-096/053
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 02:03:24. **Bukatu:** 02:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Errezatzeko ohitura handia izan dute etxean. Ogia bedeinkatu egiten zuten. Ur bedeinkatua larunbat santuan bedeinkatzen zen. Erramu bedeinkatua ekaitzak hasten zirenean erretzen zuten pixka bat, uxatzeko. Zuhaitz osoak eramaten zituzten. San Juanetan lizarrak ipintzen ziren.</p>

32. Karmenetan banketeak senideekin

- **Erref:** DON-096/055
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 02:09:11. **Bukatu:** 02:11:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Garai bateko festetako bideoak daude, bereziki pasarte barregarrienak. Karmenetan banketeak egiten ziren senide askorekin.

33. Emakumeak Rezolan

- **Erref:** DON-096/056
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 02:11:59. **Bukatu:** 02:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Rezolan emakumeek kooperatiban eta zakuekin aritzen ziren lanean.

34. Rezola eta Orona

- **Erref:** DON-096/058
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 02:13:39. **Bukatu:** 02:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Rezolan zein lan atal zeuden kontatzen dute. Rezolako hainbat langilek Orona sortu zuten.

35. Rezolako zementuaren esportazioa

- **Erref:** DON-096/059
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 02:16:10. **Bukatu:** 02:19:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Urontzietan eramaten zen kanpora Rezolako zementua Donostiako kaitik. Ameriketara eta Europara ere bidaltzen zuten. Trenez ere bidaltzen zen. Urontzietan ikatza ekartzen zuten.

36. Rezolako lan-baldintzak

- **Erref:** DON-096/060
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 02:19:07. **Bukatu:** 02:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Rezolako porlana eskuz kargatzen zen zakuetan eta eskuak pitzatuta, begiak erreta izaten zituzten langileek. Labeetako lana ere gogorra zen, baita ikatza deskargatu eta etxeetara banatzen zutenena ere.</p>

37. Plantxa zaharrak

- **Erref:** DON-096/062
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 02:23:26. **Bukatu:** 02:25:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Plantxa zaharrak ekonomikaren gainean jartzen ziren berotzen; bi erabiltzen ziren beti, txandaka erabiltzeko. Baziren sua barruan sartzen zitzaaien plantxak ere. Algodoizko arropak zirenez, ez ziren pegatzen. Beti trapu batekin pasatzen ziren aurrena.

38. Abarketa zuri, beltz eta zintadunak

- **Erref:** DON-096/064
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 02:28:24. **Bukatu:** 02:30:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Abarketekin beti ibiltzen ziren, gerora dantzarako ere bai. Zuriak festarako, beltzak egunerorako eta zintadunak dantzarako erabiltzen ziren. Kontxita abarkekin ibiltzen zen beti, zapatak elizarako bakarrik.

39. Marmitak eta txantxilla

- **Erref:** DON-096/065
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 02:30:21. **Bukatu:** 02:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Esnea banatzeko marmita erabiltzen zuten. Txantxilla erabitzen zuten neurriak hartzeko.

40. Aita Usurbilgoa, ama Aginagakoa

- **Erref:** DON-111/002
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:01:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Aita Usurbilgo San Esteban auzokoa zen, eta ama Aginagakoa. Rezolan hasi zen lanean.

41. Ikasketak, Añorgan bertan

- **Erref:** DON-111/003
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:01:53. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Añorga Txikiko eskola publikoan ibili zen. Dena erdaraz. Rezola lantegiko eskola. 15 urterekin lanera. Maisuak. Don Jesus Ruiz. Don Telesforo Galparsoro.

42. Rezolaren ikasketa bekak

- **Erref:** DON-111/004
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Rezolak sortu zituen ikasketa bekak, karrera egiteko. Bere aldetik ikasi zuen berak, posta bidez.

43. 'Centro Femenino'

- **Erref:** DON-111/006
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:06:44. **Bukatu:** 00:07:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Rezolako langileen semeentzat eskola zegoen. Neskentzat, Centro Femenino.</p>

44. Gerra garaia Añorgan

- **Erref:** DON-111/007
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:07:33. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerra etorri zenean, karmenak ziren. Frontoian zegoela bere bila joan ziren. Apaizak baserri batean gorde behar izan zuen. Taberna Berri ondoko frontoia eta amona Pilar. Cervera ontziak botatako bonba.</p>

45. Harrobia, gerrako ezkutalekua

- **Erref:** DON-111/008
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Ezkutalekua. Amasorrain harrobia eta baserria. Gerra garaian ezkutatzera harrobira joan ziren. San Estebango baserrira joan ziren bi familia. Nazionalistak ziren, gehienak bezala.</p>

Transkripzioa

- Eta izkutalekurik eta hemen eon zan e... eztakit refugiorik?
- Ba, gu hortikan behera. Gure refugiyua hor goyan este... baso... este... harrobi bat zeon. Amasorrain izena zun. Ta Amasorrain hortikan in giñun sorrera gero ikastolan sorrera... hortikan dator. Amasorrain basarriya ta Amasorrain harrobiya. Ta harrobiko... hoi, hoi re... Gure auzoko gizonak eta

gure aitak eta erabaki zuen han eongo giñala seguru, ba... seguru.. seguru bai. Han egon giñan, baño han bonba bat eroitzen baldin bada hantxe! Kueba bezela. Harrobi hortan kueba zeon. Kueba. Koba edo nola esaten da?

- Bai, koba. Kobazuloa.

- Koba. Kobazuloa. Eta han sartu giñan. Eon giñan bolara batian. Geo, gu han geundela, ba, aitak eta bere laguna hitz egin zuen zea... este gure... Gu maizterrak giñan, ta gure etxejabiakin, ba, bere anayakin Usurbillen hitz ein zun, eta San Estebango baserri batea jun giñan bi familiya. Bai Juan Zapirainen familiya ta Pedro Aiestaranen familiya fanak hara jun giñan. Ta han bizi giñan pixkat gauzak pixkat baretu arte. Asike...

- Orduan e... bildurra pasatuko zenuten?

- Bildurra? Bueno, gaztia... umea zeala ez da arduratzen hainbeste, baño bai, bai. Ta gure gurasoak ze esanik ez. Bai, bai.

- Eta zure gurasuak e... eztakit abertzaliak ziran ala?

- Bai.

- Horregatik zeuden beldurtuta?

- Ez, alde hortatik ez. Alde hortatikan...

- Bestela.

- Ez, holako muimentuik hemen ez zeon /etzeon/. Bueno, bai, daneako ordun. Badakizu. Orokorrian, ez zan halako partido ta... danak nazionalistak. Nazionalistak edo espagnolistak. Eta, eta ordun ba nazionalistak, baño arruntak. Ez, ez zea... sartuta han ta hemen beste batzuk bazeuden hemen Añorgan baziaken e?! Este, ordun, beste muimentu batzuk zauen [....]. Hor pixkat sartuta zaudenak, baño gure gurasok ez. Hortan ez zian /etzian/ sartu.

46. Eskolako gaiztakeriak eta zigorrak

- **Erref:** DON-111/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Ruiz maisuari egiten zizkioten gaiztakeriak, eskolan. Sugandilak sartzen zizkioten batzuek. Zigorra, makilarekin jotzea.</p>

Transkripzioa

- Gu giñan trabieso... trabiesuak joe! Itten giñuan gauzak hori puf! Beti han nundik o burla o nundik txantxa bat o nundik zeoze ingo giñun ta joe! Han gazte batzuk sartzen zittuen zea este... animal txiki batzuk e bai lagartijak, eztakit ze dila... xaguk igual ta... Bua, itte zien... Eta bueno, baño bestia... Ni, egiya esan, ez da /ezta/ apaltasunagatik esaten dalako, baño ni mutil normala nitzan, eta ez nitzan /enitzan/ holako gauzetan... beti txintxo portatu nahiyian! Eta... baño beste batzuk bazian!

- Orduko maixuak e... beraiek ere gogorrek izaten ziran ezta?

- Bai, bai, bai, bai.

- Ohitura zeon makillakin jotzeko ta...

- Bai, bai, bai. Harek hola batemat harrapatzen zunian halako gaxtakeri bat itten jartzen zun da edo "Belauniko jarri! Eta altsa! Ta aber sukumutur hoi,

biatz muturrak!". Eta biatz muturrak hola jarri ta makillakin... Ba nik ezautu det. Ba hor, argazkiyan, hemen dao bat holako bat... Eztakit ze in zun, ta makillakin jo eta hori-hori jarri xixkian zeak. Bai, bai, bai, bai. Bai, bai. Ordun [...] ta zea joe! Oain gutxiyokin badaude holaku ixkanbillak e... gutxiyokin. Baña orduan hori egiya zan ez zeon /etzeon/... Batzuk bazeuden merezi zuenak e... eskarmentua izatia, baño holako tipo zea makillakin... baño fin-fiña ta jo ematen zizunen izaten zun [...] itten zun txistu zea bat eta... Bai. bai.

47. Gurasoei errespetua

- **Erref:** DON-111/012
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:19:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Gurasoei errespetua. Jendaurrean erdaraz egin behar bazieten, "usted"-ka. Lagun asko elkartzen ziren. Baserrietara fruta lapurtzera joaten ziren batzuek, baina beraiek ez.

48. Umetatik pilotan, kantuan eta dantzan

- **Erref:** DON-111/014
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:19:32. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Paga. Etxerako ordua. Umetan futbola. Baloia. Taberna Berri. Pilota. Frontoiak. Kantua eta dantza. Kantuan nola hasi zen.

49. Tiple bezala kantuan, hiletetan

- **Erref:** DON-111/015
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:24:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Kantuan, tiple bezala. Don Manuel Arizmendi. Organista. Hiletak. 15 urterekin ume ahotsa zuen. Lanetik baimena ematen zioten hileta elizkizunetara kantatzera joateko.</p>

50. Parrokiako abesbatza

- **Erref:** DON-111/017
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Parrokiako abesbatza sortu zen, eta Coadro Artistico ere bai. Zarzuelak. Toki askotara joaten ziren abesbatzarekin. 30etik gora ziren, mutilak bakarrik. Neskak aparte. Milagros Basurto bakarlaria.

51. Donostiako orfeoian nola hasi zen

- **Erref:** DON-111/019
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:27:04. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Orfeoiaren nola hasi zen, Milagros Basurtoren bidez. 1948. "Estampas donostiarras" ikuskizunean, kaxarranka dantza egitea eskatu zion gaixo zegoen dantzari baten ordeaz. Gregorio Beorlegi. Juan Gorostidi.

52. Orfeoiak poz handiak eman dizkio

- **Erref:** DON-111/021
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:31:24. **Bukatu:** 00:34:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Astean bi-hiru egunetan joaten zen entseatzeara orfeoiri, Prim kalera. Han 30 bete zutenean urrezko domina eman zioten. Punta-puntako oskestra eta zuzendariak ezagutu zituen. Bidaiak. Lehenengoak, Madrilera eta Parisera. 1950ean Erromara; Aste Santua.

53. Añorgako otxotearen sorrera

- **Erref:** DON-111/023
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:36:52. **Bukatu:** 00:41:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Otxotea 1964an sortu zen. Juanito Altuna. Otxote lehiaketa, Antiguan. Anaia zuzendariaren laguntzaile hasi zen. Sariak, lehiaketetan.

54. Antton anaia, Orfeoiko zuzendari

- **Erref:** DON-111/027
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:46:06. **Bukatu:** 00:49:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Orfeoiko entseguetara berarekin eramaten zuen Antton anaia. 11 urterekin hasi zen Añorgako abesbatza zuzentzen. Orfeoiko zuzendariak (Juan Gorostidi) laguntzaile izendatu zuen.

55. Pilota zaletasuna

- **Erref:** DON-111/029
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:49:28. **Bukatu:** 00:52:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotan umetatik ibili zen. Auzo txapelketen arduradun. Luistarren kongregazioa. 1950ean buruz buruko txapelketa irabazi zuen. Iurramendi, Altuna, Zapiain... bertako pilotariak.

56. Orfeoa, dantza, pilota... dena batera

- **Erref:** DON-111/031
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:55:26. **Bukatu:** 00:56:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Lantegian, dantzari, otxotean, orfeoian... denean zegoen sartuta. Nola atera denbora pilota federaziorako? Telefonoarekin zituen arazoak.

57. Añorgako auzo alkate 19 urtean

- **Erref:** DON-111/034
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Rezolako nagusiak, Don Julianek, eskaini zion auzo alkate lana. 19 urtean egon zen karguan. Eskola berria egin zuten.

58. Rezola lantegiko laborategian lanean

- **Erref:** DON-111/036
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:03:32. **Bukatu:** 01:05:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Rezolako laborategian hasi zen 15 urterekin. Madrilera joan zen 1951n ikastaroak egitera. Laborategiko buru bihurtu zen denborarekin. Harremanak kargu askorekin.

59. 'Ama' kantua

- **Erref:** DON-111/045
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:19:43. **Bukatu:** 01:21:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Kantatu egiten du: 'Ama' abestia.</p>

Transkripzioa

- "Ama zure samintasunak
itutzen dute nere bihotza
nere bihotza poztutzen du
amatxoren alaitasunak.
Ederra zera, ederra zera ama hori,
baina nahigabe zaude gaixorik, gaixorik.
Zugatik bada beti nahigabez
zugatik mindu nere bihotza.
Ai beti-betiko zutzaz oldozten
nik zaitudalako ai nik zaitudalako urruñean.
Ai beti-betiko zutzaz oldozten
nik zaitudalako hain urruñean.
Ama, ama, ama!".
- Joe!
- Ez dago /eztao/ ahotsa bere token, exerita e gaizki kantatzea ta...
- Oso ondo, oso...
- Doñua, ze doña... hartu deten ez dakitela ta bueno. Hoi da.

- Nola du izena abesti horrek?
- 'Ama'.

60. 'Campanita' kantua

- **Erref:** DON-111/047
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:22:48. **Bukatu:** 01:23:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

<p>Campanita abestia.</p>

Transkripzioa

- Talדיakin kantatzen dana da 'Campanita' esaten zayona. "Mendia bete da elurrez...", baño hoi taldeakin ez dala... ez da /ezta/ hain...

"...

begi tarte negarrez

lan egiñez urrikidin

baiñan atsegin bat ere ez".

Ba hoi hiru tonutan hasten naiz hola ta geo bajuxeuen ta azkenian iya aintzen ez dala /eztala/ eta jendiakin [bu-bu] itten da. Arrakasta haundiko kantua da.

61. Añorgako lehen zinema aretoa

- **Erref:** DON-111/049
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:24:31. **Bukatu:** 01:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Añorgako lehenengo zinema aretoa Jolas Etxean zegoen. Pelikulak emateko lehenengo makina erakusten du. Astean bitan ala hirutan ematen zuten. Operadoreari laguntzen zion berak batzuetan. Añorgako festak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com